

Hitza	Esanahia
abagune	'egokiera, aukera'
agerian egon	'ezagun izan'
aitaren baten	'ikusi ez-ikusi, atoan'
akordura etorri	'gogoratu, oroitu'
albait	'ahalik eta'
aldamenean	'alboan, ondoan'
aldarri	'dei ozena'
altzo	'sabel ingurua'
amarru	'azpikeria, tranpa'
amore eman	'etsi, errenditu'
antxintxika	'lasterka, korrika'
arakatu	'zerbaiten bila hasi'
arbuiatu	'bazter utzi, mespretxatu'
arlote	'eskean ibiltzen dena, zarpailtsua'
arnasari buelta eman	'arnasa normaltasunez hartu'
arnasestuka	'arnasa larri hartuz'
arrapaladan	'arineketan, ziztu bizian'
atalase	'maila, altueratxoa'
atoan	'berehala'
aurpegiera	'imintzioa, keinua'
aurreragoko lanak	'lehentasuna duten lanak'
aztoraturik	'arduratuta, kezkatuta'
babo	'papau, lelo'
begitandu	'iruditu, otu'
behegain	'zorua'

Hitza	Esanahia
beirate	'beirazko atea'
beitu	'so egizu, begiratu'
betikara	'begi-kliskada, itxi-zabaldu arina'
bihozkada izan	'premonizioa, sentsazioa izan'
biraoaka	'madarikazioka, hitz gorriak esaka'
buruan erabili	'asmoren bat, ideiaren bat mamitu'
destaina	'mespretxua, erdeinua'
di-da	'keinu arina'
emango nuke	'apustu egingo nuke'
erabakitsu	'ziurtasunez, irmotasunez, konfiantzaz'
erdeinuz	'mespretxuz, gutxiespenez'
erronkari	'desafiozkoa'
ezagun izan	'nabaria izan, begi-bistakoa'
ezgauza	'balio ez duena, inutila'
ezuste	'ustekabea'
gako-hitz	'klabe-hitza, ezkutuko esanahiduna'
galapan	'korrika, arrapaladan, arineketan'
gandor	'oilarren gangarra / ileetatik'
gora eta gora	'EAJko nazionalisten kantua'
gosekil	'ezer ez daukan gizakia'
halandaze	'hortaz, bada, horrela'
harpa jotzea	'adar jotzea, txantxa'
harraska	'harria, platerak-eta garbitzekoa'
hausnartu	'gogoeta egin'
herdoildu	'ugertu'

Hitza

Esanahia

hogeita hamataka	'hogeit bairno gehiago'
igual	'agian, baliteke, beharbada'
irrika	'gogo bizia, zeozertarako nahia'
isekaz	'burlaz, trufatuz, ihakinduz'
jabetu	'ohartu, konturatu'
jakingura	'jakin-mina, irrika'
jaso	'hartu'
jaurti	'indarrez bota, jaurtiki'
jazo	'gertatu, agitu'
jendilaje	'jendaila, jende txarra'
joaldi	'larru jotzea, txortaldia'
kananarru	'ipotxa, gizaki txikitxo'
kankailu	'gizontzarra, fineziarik ez duena'
kanpaia jo	'masturbatu'
kapela	'sonbreirua'
karraju	'pasiloa'
kaskasoil	'ile gabea'
kikilkeria	'beldurra'
kilikagarri	'arreta deitzekoa'
kirrinkari	'hots desatsegina'
kopetiledun	'bekokian ere iletsua'
kuluxka	'loalditxo'
labezomorro	'(cucaracha)'
lañotasunez	'apaltasunez, mesfidantza barik'
lar ondo	'oso ondo'

Hitza	Esanahia
litxarrerria	'gauza txikiak eta askotarikoak'
mailatu	'kolpatua, txapa okertua'
makina bat	'pilo bat, hainbat'
mamala	'lela, tontola'
mamorro	'bitxoa'
maratila	'atearen txaramela, irekitzeko gailua'
marmarrean	'txutxu-mutxuka, ahapeka berbaz'
mehaka	'aldaka, gerri aldea'
melapela	'bost axola, ardurarik ez'
melatu	'beroaren beroaz egosi, jasanezin egin'
morroi	'morroskoa, tipoa'
motots	'ile bildua, "moñoa"
muin egin	'musu emateko keinu leuna'
mutxurdin	'neskazarra, adinekoa eta ezkongabea'
nagiak atera	'logura kentzeko besoak mugitzea'
nagikeria	'alferkerian, eze egin gabe'
narras	'aldrebestua, hondatua'
nora ezean	'jitoan, nora jakin gabe'
nozitu	'jasan, sufritu'
ño	'harridura adierazteko hitza'
orro	'oihu lazgarria'
osteratxo	'ibilalditxoa, bueltatxoa'
pagotxa	'zorte ona'
pantera arrosa	'krema arrosazko opiltxoa'
papar-hegal	'idun aldeko arropa ertzak'

Hitza	Esanahia
paratu	'jarri'
patriarka	'ijitoen artean, nagusia'
patu	'zoria'
pikuak	'letxe bat!, kaka zaharra!'
piperra egin	'huts egin, faltatu'
poxpolin	'neska polita'
pozarren	'poz-pozik, bozkarioz beterik'
prefosta	'noski, jakina!'
purrustada	'protesta keinua'
purrustaka	'purrustadak eginez, haserre'
sargori	'sapa, bero itogarria'
selapela	'bost axola, ez dio lebarik'
sena	'instintoa'
sumatu	'igarri, antzeman, nabaritu'
sustatu	'ikaratu, beldurtu'
talaian	'erne'
temati	'egoskorra'
tente	'hazkorra, tentea'
tentu handiz	'kontu handiz'
tranpola	'sabaiko atexka, ohol handia'
txatxu	'leloa, memeloa, mozoloa'
txizerreka	'txizaldia'
txortaldi	'txortan egin, amodioa egin'
txundigarri	'harrigarria'
txutxu-mutxuka	'esamesaka, marmarrean'

Hitza

Esanahia

udaberri-biribilki	'(rollito de primavera)'
xarma	'erakargarritasuna'
xuxurlatu	'ahapeka esan'
zakarkeria	'gogor, leuntasun barik'
zantzu	'arrastoa, marka'
zentzumen	'ikusteko, entzuteko... gaitasuna'
zerritona	'emagaldua, likitsa'
zirkin	'mugimendu txikia'
zizpuru	'suspirioa'
ziztrin	'ezdeusa, eskasa, purtzila'
zoli	'indartsua, bizia'